



BARREN
TOKIKOM

Udari ongi-etorria



EUTSI GEUREARI

LEHENIK EUSKADI



ZUREA BOZKATU



JOSEBA AGIRRETXEA
DIPUTATUEN KONGRESURAKO GIPUZKONAKO HAUTAGAIA



ej
pnv



GARAZI AYESTA



“Berehala gara Gabon Zaharretan, beraz gozatu su-gaineko jauziak”

Gure amak, urteroko abenduaren 31n eta urteroko San Joan egunean gauza bera kontatzen du. Bere amamak, San Joanak iristean esan ohi zuela “tira ba, laster Gabon Zaharrak!”; eta urtearen azken egunean “berehala San Joan suak!”, errepikatzen zuela. Gure amari istorio hori estreinakoz entzun nionean, duela hiruzpalau urte, barrez lehertu nintzen. A ze lelokeria, pentsatu nuen. Oraindik urte erdia falta da horretarako, oraindik zenbat eskola egun, zenbat udako bainu, zenbat putzu kaleetan, zenbat hozka boligrafoei azterketetan, zenbat disgustu, zenbat barre... Eta, Nora, bat-batean hemen gure burutazioak trukutzen pasatuko dugun bigarren San Joanak ospatzen ari gara dagoeneko ale honekin... Agian, ama ez zebilen, ez, hain oker... Juan zaigu beste urte bat

lehen idatzi hartatik, lehen aldiz nik zozoaren maskara jantzi nuenetik, eta belez mozorrotu zinenetik zu. Akorduan dut Ekigain jaiaz hitz egin genuela apur bat, suaz, magia eta hamaika kontuz. Akorduan dut esan zenidala botako zenituela sutara hainbat gauza, tartean politikari bat edo beste. Eman ditu bueltak munduak ordutik, baina gauza batzuk ez dira apenas aldatu, ezta, Nora?

Iritsi dira, aurten ere urteko egunik luzeenak, iritsi zaio eguzkiari ere lan kargarik handiena, eta iritsi da beste urte batez udak berarekin dakarren eternitatearen sentsazio hori. Baina, Nora, gure amama hark esaten zuen moduan, berehala gara Gabon Zaharretan, beraz gozatu su-gaineko jauziak, eta baita gero datorren guztia ere!



NORA HADI

“Denbora falta dugula kexuan gabiltzanok denbora dugunean galduta sentitzen gara”

Ai, Garazi, aspaldi ikasia dut gure amek eta are gehiago amamek beti izan ohi dutela arrazoi, denboraren poderioz jasotako esperientzia izango da. Guk ere asmatuko ote dugu horrenbeste ama edo amama garenean? Momentuz, gure lehenengo zutabea idatzi genuenean baino urtebete gehiago daukagu, eta badirudi gauza asko ez direla aldatu. Aurten gure bigarren San Joanak. Bigarrenak, urte berean. Beste behin urratu dugu eztarria lagun artean, beste behin astindu dituzu kitarraren sokak zure ahotsarekin eta beste behin disfrutatu dugu suaren berotasunaz eta musikaren majiaz. Eta bihar munean hemen gaude, paper zuri baten aurrean inspirazio bila edo, lehen aldia balitz bezala, orain urtebete bezala.

Eta zer ote du denborak, majia apur bat ez badu! Zer ote da denbora zerbait berezia eta aldakorra ez baldin bada! Zuri motz egin zaizula lehen zutabea idatzi genuenetik, eta nik politikari bat edo beste sutara botako nuela esan izana ahaztuta dudala.

Egia da, badu zerbait berezia denborak, denok urduritu eta kezkatzen gaituena. Izan ere etengabe eta bueltarik gabe aurrera doa, guztiotzat berdin: aberats, pobre, emakume, gizon, politikari zein irakasle... Beti denbora falta dugula kexuan gabiltzanok denbora dugunean galduta sentitzen gara. Ezer ez egiten, den-

bora preziatua gastatzen, alferrik kontsumitzen. Horregatik dugu, agian, aurrera begiratzeko joera hori. Etorkizuneko gure bizitza irudikatuz eta planifikatuz. Maiz, arazoak aurreikusiz eta hauek gainditzeko prestatuz. Hein batean beharrezkoa ere izango da, baina ez al gara askotan momentua, presentea, bizitzeaz apur bat ahazten, Garazi? Honekin nire amamak hainbatetan eman izan didan aholkua datorkit burura: ez sartu muturrik zorionik gordetzen ez duten lekuetan. Eta ez preokupatu gertatu gabekoez, zentratu orain gertatzen ari denaz. Ez aurreratu gehiegi existitzen ez diren arazoak asmatuz, izan ere, soluziorik ez badu alferrikako sufrimendua eragingo dizu, eta baldin badu, datorrenean konponduko duzu. Batzuetan, denboraren prismatikoak alde batera utzi eta presentea bizi, bai denboran eta baita espazioan ere. Unean dagoena, daudenekin.

Izan ere, teknologian aurrerakuntzen espazioaren barrera iraultzea lortu dute, baita hau dominatzea ere. Hemendik urte batzuetara agian denbora kontrolatzeko gai izango gara. Espero dut ezetz, pentsatze hutsak beldurra ematen baitu. Bueno Garazi, eutsi diezaiozun luzaroan aurtengo Ekigainek utzi digun zapoari, laster Gabon kantak izango dira protagonista eta.



Galtzaileen zoria

“lagundu” egiten diote eta. Eurak diseinatu duten egituraren kontrolpean, noski.

Gotzon Osoro Aberri Mutrikuarra zen, baina Elgoibarrekin oso lotura handia zuen. Idazle, poeta, antzerkilari eta kazetaria izan zen. 1910eko hamarkadan hainbat aldizkaritan idatzi zuen, *Euzkadin*, *El dian*, *Argia*, eta abar. Lauaxeta eta beste batzuekin. Euskaltzaleak elkarte sortu zuen Elgoibarko Sallobente auzoan egindako ekitaldian, 1927an. Elgoibarko Batzokiaren inguruko herritarrekin antzerkiak antolatuzituen, bai eta Jeltzaleekin ekitaldi politikoak ere.

Abertzale sutsua zen, eta langile zen aldetik, STVkoa. Uztailaren 18ko estatu kolpea eman zutenean, Osoro'tar Go-

**“Gotzon Osorok,
esaterako,
merezi zuen, bada,
gure herrian kalea”**

tzon, Gipuzkoa defendatzera joan zen, CNTko anarkistekin eta Amuategi batailoiko sozialista gazteekin.

Elgoibarren faxistak sartu baino hiru egun lehenago, *Aberri* eta haren lagun Peli Gastesi, pilotaria, baserri baserri ibili ziren leihoak nola babestu, ateetan koltxoiak eta bestelakoak jartzeko iragarritz, faxisten etorrera berehalakoa zela abisatuz.

Larruskainen harrapatu zuten errekeetee, 1936.eko urriaren hasieran. Kalamuako frontean zebilen, Markina aldetik gudariekin borrokan. Elgoibarko kartzelara ekarri zuten, Gastesirekin batera, eta hemendik Donostiara eraman. Hernanin fusilatu zituzten, egun batzuk geroago.

Gotzon Osorok, esaterako, merezi zuen, bada, gure herrian kalea, baina hemen guztion askatasunarengatik bizia eman zutenean kaleak egon beharrean, ongiletzat hartuak diren ideologo falangista eta alkate faxistenak bakarrik dauzkagu. Galtzaileen zoria da ahaztuak izatea. Noiz arte?

Edozein gerraren galtzaileak irabazlearen jazarpena eta ezarpena iren-tsi behar izaten du. Urte batzuk igaro ondoren, gainera, armez inposatzen dena, normalizat onartzen hasten da. Irabazleen eredia barneratu egiten du jendarteak, eta unibertsal gisa agertzen da, izaera neutrala, ohikoa eta beste modu batekoa ezin izan daitekeena legez.

Orduan bai gerraren irabazleek, jada, irabazten dutela: eurak ere irabazle gisa agertu beharrean, ongile bihurtzen dira. Disidentzia guztia suntsitu ostean, botere osoa izanik, jendarteari garatzen



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozaok Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegui, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaiz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► 200 EUROKO ISUNA!

Badakit bizi guztiko kontua dela multa edo isunen gai hau baina duela bi aste autoa 15 minutuz gaizki uzteagatik 100 euro ordaindu behar izan ditut, *por pronto pago*. Ez naiz hasiko isunak jartzerakoan erabiltzen dituzten kriterioak baloratzen edota multaren zenbatekoa gehiegizkoa den kritikatzin. Bakoitzak bere erreflexioa egin dezala, besterik ez dut nahi.

I.P.

► OHARRA

Domekako Hauteskunde gauean BARREnek zuzeneko jarraipena egingo die Elgoibarko eta Mendaroko

emaitzei. lazko abenduan bezala, 22:00etatik aurrera barren.eus webgunean bi herrietako emaitzak zehatzak eskainiko dizkizuegu. en moduan ez bada zaintzen gero?

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu

identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.

4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datarren eskutitzik argitaratuko.

BOZKATU  BOZKATU | PSE-EE
PSOE

BAI
aldaketari bai

PEDRO SÁNCHEZ
ODÓN ELORZA

Elgoibarko hamar umeri eskola errefortzuak eskainiko dizkie Gurutze Gorriak datorren ikasturtean

Eskola Arrakasta proiektua aurkeztuko du Gazteen Gurutze Gorriak bihar, zapatua. 11:00etatik 13:00etara Kalebarren plazan mahai informatiboa jarriko dute herritarrei proiektuaren berri emateko. Era berean, egitasmoan boluntario moduan lagundu nahi duten guzतिक izena emateko edo informatzeko aukera izango dute.

Eskola Arrakasta proiektuaren bidez, Gurutze Gorriak eskolako errefortzuak eskaini nahi dizkie ikastetxean zailtasunak dituzten umeei eta nerabeei. Gurutze Gorriak artatzen dituen familietako umeek parte hartuko dute proiektuan. Eskola errefortzu hauen bidez, gizarte bazteketa prebenitu nahi dute.

Hainbat faktorek haurren ikasketak baldintzatzen dituzte, modu batera edo bestera: inguruneak, norberaren izaerak eta abar. Gazteen Gurutze Gorriak faktore horien eragin nahi du. Horretarako zenbait zerbitzu eta baliabide haien esku laga nahi ditu, eskolan aurrera egiteko erraztasun handiagoa izan dezaten.

Hortaz, Eskola Arrakastaren bidez, eskola-laguntza eskainiko diete Gurutze Gorriak artatzen dituen familietako umeei, etxerako lanak egiten. Haurren errendimendu akademikoa hobetzeko laguntza konkretua eskainiko dute. Horrekin batera, zenbait aktibitate ludiko eskainiko dituzte. Zerbitzua arratsaldean eskainiko dute, eskolatik irten ondoren. Umeentzako jarduera horiek guztiak euskaraz eman nahi ditu Gazteen Gurutze Gorriak. Behar handiena duten umeek merienda hartzeko aukera izango dute.

7-12 urteko haurrak

Elgoibarko hamar umeek parte hartuko dute Eskola Arrakasta egitasmoan. 7tik 12 urte ingurura arteko umeek jardungo dute lehen urte honetan Elgoibarren. Pauso txiki baina sendoak eman nahi dituzte proiektuak aurrera egiteko. Gazteen Gurutze



ARDURA, HAUR AHULENEZ

Eskola Arrakastaren proiektua Gipuzkoako zenbait herritan gauzatu da. 2012an jarri zuten abian proiektu hau. Ordutik hona, proiektua beste herri gehiagotara zabaltzen ari dira. Gazteen Gurutze Gorriko boluntarioek eskola-laguntza eskaintzen dute lurraldeko hainbat udalerritan.

Gazteen Gurutze Gorriaren ekintza nagusia haur eta gazte ahulenez arduratzea da eta helburu horren barnean dago Eskola Arrakasta proiektua. Erakundearen arabera, herritarrek baliabide ekonomikoen falta pairatzen ari dira, batez ere seme-alabak dituzten familiak. "Gabezia materiala hazteak haurren eta gazteen urrakortasuna areagotzen du oinarritzko beharretan: hezkuntzan zein elikaduran".

Gorriko Amelia Almeidaren esanetan, "poliki hasteko gogoia dugu".

Proiektua irailean hasiko da eta ikasturteak iraun bitartean jardungo dute. Hala ere, uztailan umeekin eta haien familiarekin lehen kontaktua izango dute. Gurutze Gorriak Aita Agirre eraikinean duen lokalean emango dituzte errefortzuak. Ojmar eta Danobat enpresek proiektuari emandako laguntza eskertu dute antolatzaileek.

Gipuzkoako beste leku batzuetan jarri du martxan Gazteen Gurutze Gorriak era honetako proiektua eta harrera ona izan dutela nabarmendu du Amelia Almeidak.

Boluntarioak

Astelehenetik barixakura bitartean jarduteko zortzi boluntario dauzka Gurutze Gorriak. Ikasturte osorako dela kontuan hartuta, lan handia aurreikusten dute. Horregatik, prest dauden boluntarioek atea zabalik daukate. Hori bai, perfil konkretu bateko boluntarioak nahiago dituzte, aurreikusten duten lana hobeto egin ahal izateko. "Batez ere, irakasleak, psikologoak eta gizarte laguntzaile perfila dutenak behar ditugu", azaldu du. Boluntario izateko 675 847 307 telefono zenbakira deitu dezake ekimean lagundu nahi duenak.

Epaimahaiak Viento Surren pintxoak saritu du, eta herritarrek San Rokerena



Viento Sur tabernaren *Hau ez da landare bat* izeneko pintxoak irabazi du pintxo onenaren saria, eta bigarrena Lagun Artea tabernako *Porru sorpresik*. Epaimahaiakideen arabera, "lehia estua" izan da pintxo lehiaketako zortzigarren edizio honetan. Herritarrek, berriz, San Roke tabernaren *Txanpiñoi betea* pintxoak saritu dute.

"Asko kosta zaigu irabazleak aukeratzea eta bi pintxori sari bera eman ala ez zalantza eduki dugu azken unera arte", azaldu du Fernan Calvo epaimahaiakideak. Tabernariak kalitate handiko pintxoak aurkeztu dituztela nabarmendu du, eta lehen aldiz parte hartu duten tabernekin egin duten lan bikaina goraiatu du.

AEKren uztaileko eta iraileko eskolak

Elgoibarko AEK euskaltegiak uztailean eta irailean eskolak emango ditu EGA, Irale, IVAP, Osakidetza zein HABE azterketak prestatzeko. Udalak jarritako baldintzak betetzen dituztenek matrikula erdia baino ez dute ordaindu behar izango. Izena emateko edo informazioa eskatzeko, AEKra jo beharra dago ekainaren 29ra bitartean (Gabriel Kuruzelaegi 10, Toletzeko tren geltokiaren beste aldean). Bestela 607 601 423 telefonora deitu edo idatzi elgoibar@aek.eus helbidera.

Odol emaileen zozketako lehen saria Elgoibarrera

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak egindako zozketako lehen saria 1.471 izan da eta Elgoibarren tokatu dela jakinarazi du. Irabazleak Akelarre jatetxean bi pertsonentzako afaria eta Amara Plaza Hotelean gaua irabazi du. Bestalde, gaur, odola emateko aukera izango dute nahi duten guztiak Odol emaileen lokalean.

Alderdiak ate joka

Hauteskunde kanpainaren barruan EAJk ekitaldia eskaini zuen Elgoibarren martitzenean. EH Bilduk, berriz, atzo arratsalderako antolatu zuen hitzaldia Kalegoen Plazan. Espainiako Kongresuko eta Senatuko hauteskundeen Elgoibarko eta Mendaroko emaitzak domeka gauetan eskainiko ditu BARRENEK, 22:00etatik aurrera barren.eus webgunean.



I. URTEURRENA

Luis Elustondo Gorriti

2015eko ekainaren 30ean hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainak 25, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.





“Parapentean ibiltzea bizikletaz airetik ibiltzea bezalakoa da”

Haizea dator iparraldetik, dio kantuak eta parapentean ibiltzeko haizearen norabideari asko erreparatu behar zaio. Iosu Juaristi Zabala parapentean ibiltzen da eta kostaldeko ikuspegiei begira ez ezik barruko mendietatik ere egiten du salto. Horietako bat da Karakate. Maiz ikusten ditugu parapenteak zeruan, baina jakin ez dakigu zer behar den horietako batean ibiltzeko, ezta hegan ari direnek zer sentitzen duten ere. Parapenteko kontakizunetan aineratu eta lur-hartu arteko abenturan azaldu ditu askorentzat tela zati hutsa duenak azpian doanaren baitan sortzen duena.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

▶ IOSU JUARISTI ZABALA PARAPENTE LARIA

◆ Nola bururatu zitaizun parapentean ibiltzea?

Txikitatik hegan egiten duen edozerk atentzioa eman dit eta beti izan dut hegan egiteko ilusioa. Zumaikatik pasatu eta Arroa parean hegan egiten ikusten nituen eta Urazanditik orain dela hamabost-hogei urte-edo ikusten nuen Karakaten hegan egiten zutela parapenteekin. Zientzia-fikzioa iruditzen zitzaidan. Parapentean zailena haiek egin zuten, orduan parapentean ibiltzen ziren ausart eta adoretu haiek. Materiala eta teknologia asko garatu da. Oraingo parapente arruntak dira orain dela hamar urte lehiaketetarako erabiltzen zirenak bezalakoak, oso seguruak. Lehen aitzindari izateaz gain, ausardia erakutsi eta segurtasun gutxiagorekin salto egiten zutela esan liteke, orain bidea urratu zigutenez errazagoa da guretzat. Garai batean Karakatek salto egiten zuten batzuek eta zoroak iruditzen zitzaizkigun, orain niri eta nire lagunei buruz esango dute erotuta gaudela.

◆ Nola ikasi zenuen?

Orain dela bi urte Hechon (Huesca) egin nuen parapente ikastaroa. Astebeteko oporrak hartu eta Mendaroko Goizon Zulaikarekin joan nintzen, emazteari ezer esan gabe, arduratu ez zedin. Gorka Lizaso izan nuen irakasle eta, eski eta snow monitorea izanik, aurrez ezagutzen nuen. Teoriako irakaslea, berriz, Asier Garate izan zen eta ikasle ona nintzela

esan zidan. Lehenengo hegaldia Pantico-san egin nuen lurretik 1.000 metrora-edo. Parapentean hegan egitea, berez, oso erraza da. Horretarako diseinatuta dago eta eguraldi ona tokatuz gero, primeran, gainera irratitik gidatu gintuzten. Hegaldi hark engantxatu egin ninduen.

◆ Non ibiltzen zara?

Haizearen norabidearen arabera aukeratu behar da hegan egiteko lekua. Iparaldetik datorrenean kostan hegaldia oso lasaia eta polita da haizea fina eta konstantea baita. Zarautzen, Zumaiako flys-chean, Deban (umetan gizon bat ikusten nuen han hegan eta berreskuratzeko modua izan da), oro har kosta guztian egiten dugu hegan. Hego haizea dagoenean, aldiz, Izarraizera edo Herniora joaten naiz. Karakaten ipar-haizearekin. Karakateko lehen hegaldia berezia izan zen niretzat.

Aireratzea bai, baina gero eta zailagoa da parapentean ibiltzea, batik bat lur-

hartzea. Toki lau eta zelai gutxiago daude eta kable gehiago. Turismorako polita da parapenteak hegan ikustea, baina traba edo arrisku ere bagarela dirudi eta base-ritar batzuei ere ez zaie gustatzen haien lurretan ibiltzea.

◆ Zailena zer iruditu zaizu?

Norberak baino esperientzia handiagoa duen norbaitekin egonez gero, oso erraza da, berak erabakitzen baitu hegan egin daitekeen ala ez. Erabaki hori da hartzten zailena. Bakarrik joaten banaiz gehiago kostatzen zait erabakitzea salto egitea ala ez.

Gainontzean aireratzea eta lur-hartzea dira delikatuena. Hegan bi, hiru edo lau ordu ematen ditugunez trebetasuna hartzen da, baina aireratu eta lur-hartu hegaldi bakoitzean behin egiten dira. Eskalatzerako edo eskiatzerako joandakoan iritsi orduko hasten da jendea; parapentean, berriz, iritsi eta haizeari, lainoei erreparatzen egon ondoren baliteke erretiratu behar izatea.

◆ Zer sentitzen duzu parapentean zabiltzanean?

Hegaldi bakoitzean oso erlaxatuta joaten naiz, urduri ere, gero pozik, hurrengo beldurtuta... Gozatzen dut urduri egon arren hegan egitera noalako. Era berean, seguru sentitzen naiz kontrolatzen dudalako. Logura ere sentitu dut noizbait, agian urduritasuna pasatu ondoren. Sentsazioak asko dira. Gero lur hartu eta pozik egon

*“Haizearen
norabidearen
arabera aukeratu
behar da hegan
egiteko lekua”*



“Parapentean ibiltzeko garrantzitsuena da ez pentsatzea norbera dena baino gehiago dela”

naiteke, harro, urduri jarraitu dezaket... Jendeari parapentean ibiltzera etortzeko proposatu eta denek esaten dute ezetz, beldurra ematen diela. Binaka ere joan daiteke parapentean, baina nik ez dut inor eraman, teknika bera izan arren ez dut materialik, eta nahikoa dut nire buruarekin arduratzen.

◆ Parapentea probatu nahiko lukeenari zer esango zenioke?

Parapentean ibiltzea biziketatza airetik ibiltzea bezalakoa da. Bi lagunentzako parapenteak badaude eta probatzeko hegaldi bat egin daiteke, esperientzia lasaigarria da. Zailena erabakiak hartzea da, eta hori besteak eginez gero... 30-35 kilometro orduko abiaduran joan eta bertigorik ere ez da sumatzen. Lasaia da.

◆ Zer hartu behar da kontuan?

Parapentea bera eta haizearen kontrola ezinbestekoak dira, noski, baina garrantzitsuena da ez pentsatzea norbera dena baino gehiago dela, oso umila izan behar da norbere buruarekin. Bestela sekulakoa hartzeko arriskua dago. Meteorologiari buruz asko jakin edo parapenterik onena daukala pentsatu arren ez da nahikoa. Airean, eguneroko zure media ez den toki batean, aritzea da, eta badakigu eguraldia zein denbora gutxian aldatu daitekeen.

◆ Edozein egun aprobeztatzen duzu parapentean ibiltzeko?

Hegan egiteko moduko eguna bada joaten naiz, bai. Udan, normalean, ipar ekialdeko haizea, brisa, izaten da kostan, nahiz eta Elgoibarren hego haizea egon. Brisa horrekin oso ondo hegan egiten dut



normalean. Ia uda guztian kostan egiten dut hegan edo kostatik gertu, Karakaten, izan daiteke. Abuztu eta irailean aldaketa egoten da eta gero hego haizera pasatzen denean barru aldera joaten naiz: Hernio, Izarraitz...

◆ Zuretzat zein da tokirik politena?

Ez dut toki askotan hegan egin: Pirinioetan (Candanchun, Hechon), Lanzaroten

eta inguru hauetan. Baina Debakoa edo Karakatekoa dira niretzat bi hegaldi politenak, txikitatik dudalako oroitzapen hori. Orduan ikusten nuen irudi hori nik protagonizatzea lortu dut.

◆ **Bistak deigarriak dira parapentetik?**

Ikuspegiei begiratzen diet momentu batzuetan, baina etengabe kontrolatu behar da hegaldia nola doan eta haizearen arabera zer egin erabaki.

◆ **Beldurrik sentitu al duzu noizbait?**

Bai, gehien Karakateko hegaldi batean orain dela hilabete inguru, eguerdian. Orduan ikasi nuen udaberrian, eguerdian, termikak oso potenteak direla. Mila metrora nengoan Karakateko antenaren gainean ezin jaitsita. Beste bat segurua aski egoera horretan gozatzeko egongo litzateke, niri, ordea, ez jakite horrek beldurra sortu zidan eta ahalik eta lasterren jaitea zen nire gogoan. Parapentean ezin da edozein momentutan jaitsi, ez da bizikletan bezala frenatu eta gelditzea bezalaxe.

◆ **Karakatetik nora jaisten zara?**

Orain dela 15 urte Karakatetik salto egiten zutenean Alkortako aparkalekura jaisten ziren eta aldameneko zelaira. Orain, ordea, kable eta posteekin ezin da. Begiratzen egon ginen zein izan zitekeen lur hartzeko toki egoki bat eta Mintxeta baserriko zelaiaren atzeko aldean lehen pinudi bat ze goen, eta oso txarra zen ondoko zelaia era-biltzeko. Gero pinudia moztu zuten eta zelai hori primerakoa da lur hartzeko. Behin han lur hartu eta baserriarra etorri zenean barkamena eskatu genion. Ondoren, guk han lur hartzea axola al zitzaien galdetuta, ezetz esan eta baimena eman zigun. Orain, hi-

labete batean-edo belarra hazten utzi eta gero han izango dugu zelaia. Hegan gaitzala ikusten dira lur hartzeko beste hainbat toki, baina Mintxetan baimena izanda hobe.

◆ **Askotariko kiroletan aritu zara, jarraitzen duzu guztiekin?**

Ilusioz hasi nintzen ea bizikletarekin noraino heltzen nintzen ikusteko, baina orain bizikletan oso gutxi ibiltzen naiz. Korrika egiteko *atakea* ere izan nuen... Baina sobera hartzen duenak, gaizki estutzen du. Gainera, bizikletan ibiltzeari utzi arren ez da ahazten, korrika bizkorrago edo polikiago baina badakigu egiten; parapentean, ordea, konstan-

*“Parapentean,
konstantzia behar da.
Ez dakit horregatik
den, baina engantxatu
egin nau”*

tzia behar da. Ez dakit horregatik den, baina engantxatu egin nau.

Orain parapentean ibiltzeaz gain, eskiatzen ibiltzen naiz gehien bat snow zein eskiekin, noizbait egin izan dut *border cross* probaren bat eta *free ride* n bat. Lagunekin Candanchu inguruan beti saltsa horretan ibiltzen naiz. Eskia da zaletasun handienarekin egiten dudana kirola. Elurretan bizi ez garenez, hemen zerbaitekin entretenitu behar dugu eta horretarako egiten ditut beste kirolak.

◆ **Zein dira zuk daukazun beste zaletasunak?**

Argazkilaritza. Aita argazkilaria izan da, baina batik bat Maiterekin gehitu zait zaletasuna. Maite Maiora korrikalaria da nire emaztea eta lasterketetara laguntzera joaten naiz. Inork argazkirik ateratzen ez zionez, horrela hasi nintzen berari eta besteei ere ateratzen.

Airetik ere, ateratzeko moduko milioi bat argazki ikusten ditut eta badut asmoa noizbait ateratzeko. Oraingoan, ordea, nahikoa lan daukat airean mantendu eta gero lur hartzen.



Suaren bueltan



Udaren etorrera suaren bueltan ospatzeko ohiturarekin bat egin dute aurten ere hainbat herritarrek. Martitzenean, solstizioarekin batera, Ekigain jaia ospatu zuten Elgoibarko Izarrak Sallobente-Ermuaranen bigarren urtez. Argazkietan ikus daitekeen moduan jai giroa nagusitu zen (argazki gehiago barren.eus). Ez da, baina, suaren inguruko ospakizun bakarra: Altzolan atzoko (eguen) San Juan suaren ostean, jai egitarau mardula antolatu dute asteburu osorako (egitaraua, 20. orrialdeko agendan); Mendaron, beriz, atzo iluntzerako akelarrea antolatu zuten Ludotekak eta Gaztelekuak, suaz gain, txalapartaz, perkusioaz, akerraz eta dantzez gozatzeko asmoz. Bestalde, Elgoibarko Udalak San Juan sua pizteko bi leku baimendu zituen, Goikoerrotako zubi ondoan eta Basarten.



“Maala beteta ikustea eta jendea gustura sentitzea izan da satisfazio handiena”

► GORKA MUJIKA UDAL MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIORDEA

Zapatu gabean aurreikuspen guztiak gainditu zituen Elgoibarko Udal Musika Bandak. Maalako parkea txiki laga zuen jendetzak. Zaharrek eta gazteek gozatu ederra hartu zuten Gorka Mujikaren gidaritzapean eskaintako rock doinuekin. Bandarekin elkarlanean, gainera, eskarmentu handiko zenbait artista elgoibartarrek jo zuten. Emanaldiaren arrakasta denon ahotan izan da aste honetan.

- OIER NARBAIZA -



◆ Zapatuko kontzertua zuzendu ondoren, zer balantze egingo zenuke?

Kristorena! Espero genuen jendea etortzea eta kontzertua Maalan ondo irtengo zela. Funtzionatuko zuela espero genuen. Baina kristorena izan da guretzat! Hasieran ikusi genuen zer jendetza zegoen. Jotzerakoan konturatu ginen ondo zihuala. Haluzinatuta gaude, harrera kristorena izan da eta. Asmatu dugu.

◆ Jende askoren zorionak jaso dituzue?

Pila bat etorri zaizkigu. Kontzertua amaitu eta jende asko inguratu zitzaidan eskertzeraz, ideia ona izan zela esatera, errepikatu behar genuela. Bandako kideekin egon naiz eta eurei ere etorri zaizkie.

◆ Ez zenuten horrelakorik espero...

Ez hainbeste. Esaten genuen produktua ona zela, baina harrera kristorena izan da. Elgoibarko herria oso ondo partatu da.

◆ Zelan ikusi duzue zuen burua Herriko Antzokitik kanpo eta formatu honetan?

Ondo. Kontzertuan oso gustura egon ginen jotzen. Musikoak denak motibatuta ikusi nituen. Gero, prestakuntzan ere ilusioa ikusten genuen, ideia gustatu zaie Bandako kideei ere. Entseguetan, abesti batzuk guretzat zailak ziren musiko denek lan handia egin dute eta emaitza ona izan da.

◆ Rocka jotzean, ikusleak gertuago sentitu dituzue?

Bai... publiko ezberdina izan dugu. Herriko Antzokira etortzen direnak ezagutzen ditugu eta asko ikusi genituen. Baina jende gazte asko ikusi nuen Herriko Antzokira ez dena hurbiltzen eta jende berri asko ikusi dut.

◆ Azken batean, hori zen helburua, publiko berria ere erakartzea.

Elgoibarko Banda ez da bakarrik Herriko Antzokira mugatu behar eta kanpora ateratzea beste ordutegi batean, beste toki batean, ideia ona izan da. Lortu dugu banda ezagutzen ez zuen publikoa etor-

tzea eta pozik gelditu dira.

◆ Prozesu honetan zein izan da zailtasunik handiena?

Luzea izan zen. Hasieran zaila zen zer jo. Horrelako partituras bandarentzat ez daude. Orduan moldaketak egin behar dira. Kide batek, Juanma Saezek, lan hori egin du. Entseguetan abesti batzuk nahiko zailak ziren, eta prestatu egin behar ziren. Kalitate musikala ere eman behar da eta gero rock bandarekin akoplatu beharra dago: imaginatu flauta bat eta ondoan gitarra elektrikoa. Detaile txiki asko dira, baina funtzionatu du.

◆ Poz handiena zerk eman dizue?

Abesti bat bukatu eta publikoa ikustea. Maala beteta ikustea eta Elgoibarko jendea gustura. Niretzat hori da satisfaziorik handiena.

◆ Zerbait gehitu nahi duzu?

Herriari eskerrak eman nahi dizkiot eman duen erantzunagatik. Maala horrela ikustea kristorena izan da.





'Gure imajinarioa kantagintzaren bitartez' ikastaroa urrian izango da

Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean antolatu dute *Gure imajinarioa kantagintzaren bitartez* ikastaroa. 10 orduko ikastaroan irakasleak Gotzon Barandiaran idazle eta musikazalea eta Rafa Rueda musikaria izango dira.

Gotzon Garate zenaren oroimenez prestatzen duten zikloaren baitan antolatu da ikastaroa, eta helburua da kantagintzak euskaldunon imajinarioa eraikitzeko izan duen eta daukan garrantziaz gogoeta egitea; gure idazle eta musikariek Euskal Herria nola kantatu duten erakustea; eta historiako liburretan erakusten digutenaren eta idazle eta musikarien artean sortutako kantek kontaktzen dutenaren artean zein alde dagoen jakitea.

Ikastaroa bost egunetan emango dute (urriak 5, 13, 19, 26 eta azaroak 2) eta bi ordukoa izango da saio bakoitza. 20:30ean hasiko dira Kultur Etxeko hitzaldi-gelan eta toki mugatuak izango dira 30 lagunentzako. Prezioa 30 euro da (27 euro, Elgoibarko Izarrako bazkideek).

Izen-ematea zabalik dago eta horretarako Elgoibarko Izarrara idatzi edo deitu behar da: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus edo 943 741 626.

Kandelak egiten ikasteko umeentzako tailerra zapatuan Kalebarrenen

Elgoibarko hilaren azken zapatuko azoka bihar izango da. Goizean, herriko baserritarren saltokiak eta Sanlo eskubalio taldearen pintxoak (herriko baserri eta harategietako produktuekin) egongo dira Kalebarren plazan. Handik abiatuko dira baita ere Kale Kantariak 12:00etan. Ordu berean hasi eta 14:00etara bitartean, berriz, kandelak egiten ikasteko haurrentzako tailerra egongo da Kalebarrenen. Tailer horretan kandelak egiteaz gain, txikienek erleen inguruko azalpenak jasoko dituzte. Bestalde, eguerdian hasi eta arratsaldera bitartean ganadu-erakusketa egongo da Aita Agirre plazan.

Uztailaren 1ean hasiko dira aire libreko zinema emanaldiak

Herriko Antzokiko zinema emanaldien atsedenaldiaren ondoren, berriz izango da film berriak ikusteko aukera. Saiok ez dira zinema aretoan izango ordea, aire libreko zinema zikloa hasiko baita uztailaren 1ean. Emanaldiak 22:00etan egingo dituzte Kalegoen plazan. Iragarri duten lehenengo filma *Ocho apellidos catalanes* da. Neska euskaldun bat kataluniar batekin maitemindu, aita horrekin konforme ez eta honek eta bere inguruak egiten dituenak kontatuko ditu filmak.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

aldaz
hartz klinikak

RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com

RPS 115/18

CLINICA DENTAL
ELIZPE
HORTZ KLINIKA

RPS 88/15
Elizburu, 3 - SORALUZE
Tel.: 943 752 567

Astehelentik ostiralen
10:00-13:00 / 16:00-20:00
e-mail: elizpe3@gmail.com

Jende asko bildu zuen Mikel Markezek Kultur Etxeko sotoko saioan

Eguaztenean Kultur Etxeko sotoan lagun asko elkartu ziren Mikel Markez abeslariaren berbak eta kantuak entzuteko. Tertuliak programako partaideez gain, hainbat herritarrek adi entzun zuten Markezek euskal kantugintzaz egindako errepasoa: abestiaren transmisioa, doinuak, kantu biltzaileak, grabazio eta euskarriak, Ez dok hainmairu, kontzertuak, baldintza egokiak probestuz abeslari berrien sorrera, kantaera berriak (pop, rock, folk...) eta euskal kantagintzaren aniztasuna. Hori guztia hainbat abesti ezagun tartekatuz: *Atharratzeko gazteluko kantua*, *Eperra*, *Maritxu nora zoaz*, *Goizian argi has-tian*, *Gaztedi berria*, *Loretxo*, *Hegoak ebaki banizkio*, *Araban bagare*, *Xalba-*



dorren heriotzean, *Euskal Herrian euskaraz*, *Lau teilatu* eta *Zenbat gera*. Emanaldiaren amaieran Mikel Markezek bere bi abesti ere eskaini zituen: *Zure begiek* eta *Konplize ditut eta*.

Bertaratutakoek gustura entzun zituzten Mikel Markezek kontatutako anekdota eta bitxikeriak eta abeslariarekin batera kantatu zuenik ere izan zen entzuleen artean.

Ohorezko matrikula lortu dute Elgoibarko Institutuko bost ikaslek



Amaitu da 2015-2016 ikasturtea batxilergoan, eta joan den astean Selektibitatea egin ostean, oporretan daude ikasleak. Elgoibar BHI Institutuko arduradunen arabera, batxilergoko bost ikasleak eskuratu dituzte ohorezko matrikulak. Joseba Lopez, Libe Garate, Ane Masach, Udane Oartzabal eta Egoitz Maiora dira (argazkian ezkerretik eskumara). Gainera, Institutuko ikasleen %99k gainditu du Selektibitatea. Elgoibar Institutuko batxilerreko diploma bana-keta astelehenean egingo dute Herriko Antzokian, 19:00etan.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Jeku
eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

Garazi
Sampedro
Arando
RPS 169/15
ERROSARIO
HAGIN KLINIKA
Errozatio, 7
Elgoibar
943 743 679

Denboraldi amaierako ekitaldia Mintxetan



Aletismo denboraldia ere ailegatu da amaierara, eta Mintxeta Atletismo Taldeko arduradunek, entrenatzaileek eta atletak merienda batekin ospatu zuten eguaz-tenean, Mintxeta kirol gunean.

Gizonezkoen eta emakumezkoen pala txapelketak baditu irabazleak



Euria zela-eta Ikastolako frontoian jokatu behar izan zituzten pala txapelketako finalak, joan den barixakuan. Emakumezkoen finalean Jone Loiolak eta Amaia Loiolak Olatz Txurrukaren eta Inma Mugerzaren aurka jokatu zuten eta lehen biek ez zieten aukerarik eman bigarrengoei. Hasieratik hartu zuten aurrea markagailuan eta 22-5 gailendu ziren. Jarraian lortzen duten hirugarren garaipena da Jone eta Amaia lehengusinentzat. Gizonezkoen finalean, elgoibartarren eta debarren arteko lehian, Mikel Lopez Morcillo eta Sergio Saldago debarrek 22-15 irabazi zieten Asier Jauregiri eta Unai Etxeberriari.

Ane Zabaleta Espainiako txapelkun 100 metrotan

Kirol egokituaren Espainiako Atletismo Txapelketa jokatu zuten aurreko asteburuan Alcorconen (Madril, Espainia), eta Dordoka kirol elkarteak ordezkatzuz hartu zuen parte Ane Zabaleta Rojo elgoibartarrak. 100 metroko proban lehiatu zen eta urrezko domina eskuratu zuen.



Concepto Egileko lau jokalaria euskal selektioarekin

Areto futboleko euskal selektioak lagunarteko partida jokatu zuen Kataluniakoaren aurka, Martorellen. Kataluniarrak gailendu ziren, 5-3. Euskal selektioarekin jokatu zuten partida hori Concepto Egileko lau jokalarik: Asier Gil, Mikel Treviño, Ramon Del Campo Motxo eta Iñaki Mollor. Azken bi jokalaria horiek Conceptok 2016-2017 denboraldirako fitxatu ditu.



Maite Maiorak irabazi du igoera bertikalen Espainiako txapelketa



Kilometro Bertikalen Espainiako Txapelketa jokatu zuten aurreko domekan Fuente De-n (Europako Mendiak, Kantabria). Emakumezkoetan Maite Maiora mendaroarrak irabazi zuen proba (39:46). Lesiotik sendatu eta lehiara itzuli zenetik garaipenez garaipen dabil igoera bertikaletan. Zegama-Aizkorriko kilometro bertikala irabazi zuen lehenik, Zuzenien kilometro bertikala gero, eta igoera bertikalen Espainiako txapelketa orain. Paula Cabrerizok egin zuen bigarren Fuente De-n, Maiorarengandik 45 segundora. Vanesa Ortega sailkatu da hirugarren postuan, irabazlearengandik bi minutu eta lau segundora. Ainhoa Lendinez elgoibartarra seigarren postuan sailkatu zen, 45:25eko denborarekin. Gizonezkoetan Oriol Cardona kataluniarra izan zen azkarrena, 33 minutu eta 33 segundoko denborarekin. Bi euskal lasterkerik osatu zuten podiuma. Imanol Goñik egin zuen bigarren (34:35) eta Iñigo Lariz elgoibartarrak hirugarren (34:49).

Nahaste Borraste, gaur arratsaldean

Gaur arratsaldean jokatu da Nahaste Borraste herri-lasterketa. 19:00etan hasiko da Kalegoen plazan, eta partaideak hiru probatan leihatu beharko dira: zazpi kilometro inguru egin beharko dituzte bizikletan, eta ondoren, 400 metro egingo dituzte korrika 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, eta azkenik, 1.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute saltaka. Parte hartu nahi duenak proba hasi aurretioxan eman beharko du izena, Kimetz elkartearen.



Arte martzialen erakustaldia Maalan



Arte martzialen erakustaldia egingo dute zapatu honetan (hilak 25) Maalako parkean. Anaitasuna Kanku Eskolak arte martzialen zentroa irekiko du Elgoibarren (Pedro Mugurutz, 9), eta eskainiko dutenaren berri emateko irtengo dira kalera. Kankuko arduradunek jakinarazi dutenez, 25 urte baino gehiagoko esperientzia dute arte martzialen munduan. Karatea, defentsa pertsonala, Tai Chi, Cki kung... eta beste hainbat kirol eta modalitate irakasten dituzte. 12:00etan hasiko da erakustaldia, eta amaiaeran, eta zentroa bisitatzeko aukera izango dute interesatuek.



ARTE MARTZIAL eta EKIALDEKO TERAPIA zentro berria!

Karatea - Defentsa pertsonala
Tai chi - Cki kung

J. Murillo Gipuzkoako karate federazioako zuzendaritza teknikoa
Adin guztietan. Etorri eta informatu zaitez.



AURKEZPEN EGUNA
Ekainak 25, larunbata
12:00etan, Maalan

空手道

C.D. KANKU

2016-2017
matriculaldia zabalik.
Tel.: 652702303
658741167
Pedro Mugurutz, 9

J. Murillo Gipuzkoako karate federazioako zuzendaritza teknikoa
Adin guztietan. Etorri eta informatu zaitez.

AURKEZPEN EGUNA
Ekainak 25, larunbata
12:00etan, Maalan

LANA.....
Eskaerak

Edozein lanetarako prest. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen esperientzia. 602 193 095

Edozein lanetarako prest. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen esperientzia. 612 216 458

Umeak zaintzen lan egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentzia onak. 632 747 703

Pertsona nagusiak zaintzeko prest, asteburuetan. Esperientzia eta erreferentzia onak. 648 039 187

Pertsona nagusiak zainduz egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat. Orduka, gauak edo ospitaleko zaintzak. Etxeko garbiketarako egiteko ere prest. 633 808 931

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Orduka aritzeko eta paseatzera ateratzeko prestutasun osoa. 646 931 162

Adineko pertsonak zaintzen edo tabernen eta portalen garbiketarako lan egiteko prest. 631 790 555

Adinekoak zaintzen, garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile aritzeko prest. Interna edo orduka. 631 132 553

Adineko pertsonak zaintzeko prest. Or-

duka, interna edo gauetan. 628 014 327

Adineko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 637 966 749

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 625 857 164

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. 631 212 497

Matematika, kimika eta fisika eskolak ematen ditut, batxiler mailara arte. 943 743 926

Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Bakarka edo talde txikietan. 685 706 001

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxeak, tabernak eta elkarteak garbitzen ditut. 628 738 472

Pertsona elgoibartarra adinekoak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak. 660 511 781 edo 943 742 330

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko prest, orduka edo interna. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia daukat. 616 457 254

Adineko pertsonak edo umeak zaintzen

ditut. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. 632 564 679

Pertsona elgoibartarra nagusiak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiteko prest. Diplomatu naiz eta informeak dauzkat. 675 711 658

Garbiketa lanetan aritzeko prest nago. Orduka. 612 458 762

Lan bila nabil. Okin lanetan eta sumermerkatuan aritutakoa naiz. 631 363 056

Pertsona arduratsua orduka garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari aritzeko prest. 612 477 386

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Interna edo orduka. 631 417 922

Eskaerak

Neska euskalduna behar da uztailen, goizez, bi ume zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 665 720 335

Astean bi orduz, arratsaldean, irakurtzen erakutsiko lidakeen norbaiten bila nabil. 632 279 996

Aisia Deba hoteleko harreraren udan lan egiteko pertsona bat behar da. Harreraren esperientzia izatea eta hizkuntzak jakitea kontuan hartuko dira. Bidali curriculum: deba@aisiahoteles.com

Zerbitzaria behar da Malape tabernan lan egiteko. Sukaldean lan egiten ere

jakin behar du. Curriculum Malape tabernan laga.

Umeak zaindu eta etxeko lanak egingo dizkigun pertsona bat behar dugu, berehala lanean hasteko. 636 193 807

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Alokairuko pisu bila ari naiz. 3 logela. Ahal dela Elgoibarko erdigunetik gertu. 655 712 021

Familia batek etxebizitza hartuko luke alokairuan Elgoibarren. 632 608 683

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 605 322 824

Etxebizitza bila nabil. Buhardilla bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Gela bat edo bikoa. 602 490 595

GARAJEAK.....**Salgai**

Debako hondartzan garaje itxia salgai. Lehenengo solairuan. 655 712 021

Alokairua

Bi autorentzako garaje marraduna alokagai Pista Beltzean. 75 €ko alokairua. 699 812 566

BESTELAKOAK.....

Zilarrezko pultsera bat galdu dut. Balio sentimental handia du. Norbaitek aurkitu badu deitu, mesedez. 628 784 502

Lepoko bat aurkitu nuen ekainaren 4an, Txariduna taberna kanpoaldean. Norbaitek galdu badu deitu. 660 056 219



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Ni bizi naizen komunitatean, eraikinaren beheko aldeko nabean bandalismo ekintzak izan dira, hain zuzen ere, pintadak portalean eta nabeko atean. Jakin nahi nuke komunitateak ordaindu behar al dituen nabeko ateko pintadak kentzeko gastuak.

Nabeko atea pribatua da. Etxebizitza edo lokal bakoitzaren jabeak, legearen arabera, jabetza eskubide berezi eta eskusiboa du bere elementu pribatuentzat. Beraz, jabetza pribatu -etxebizitza zein lokal- bakoitzeko atek, kalerako sarrera-irteera zuzena dutenak, ezaugarri bereziak ditu etxebizitzatik kanpokoak direlako.

Pribatuak izanik, txukun mantentzea eta zaintzea jabe bakoitzarena da. Legeak dio jabe bakoitza derrigortuta dagoela bere lokal edo etxea eta honen instalazio pribatuak egoera onean kontserbatzera. Beraz, komunitatea ez dago derrigortuta kontserbazioa eta mantenimendua bermatzera eta jabe bakoitza arduratu beharko da.

AHOLKUA: Komunitatea ez da komunak ez diren eraikineko elementuen kanpoan zein barruan pertsonaren batek egindako ekintza bandalikoaren arduradun.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRE**Neko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



1954koen ospakizunean 45 lagun elkartu ginen eta antolatzaileok denak eskertu nahi ditugu, baita saria jaso zuten Eduardo Garcia eta Jose Vila zoriondu ere.



Bi urte gurekin korrika zure ahalegin, dedikazio eta maitasunez. Korrika ez baino neskon artekin bazoazen honetan, eskerrik asko gure monitorea **Angel Lopez**.



Zorionak, **Gorka**! Gaur 2 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familia guztia- ren partez.



Dagoeneko 4 urte! Zorionak, **Nora**. Patxo handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Malen**. Egun ederra pasatu genuen zure 9. urte-betetzean. Muxu asko, familiak eta bereziki June-k.



Zorionak, gure **Unax** zaldunari. Astelehenean 5 urte beteko dituzu. Patxo handi bat familia guztia- ren partez.



Zorionak, **Ander**, 5. urte-betetzean. Etxeko- aak eta bereziki asko maite zaituen Markelek, muxu handi bat.



Zorionak, **Ixa- peldun**, 11. urte-betetzean! Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Eneko**! Larunbat- ian urtetxo bat. Muxu potolo bat familia- koen eta bereziki Naroa- ren partez.



Maider, zorio- nak! Atzo 9 urte. Muxuak!



Zorionak, **Leire** eta **Gaizka**. Heldu da zuen eguna. Espero dugu mundial pasatzea. Zuen lagunak.



Heldu da eguna! Ondo pasa ezazue **Gaizka** eta **Leire**! Familia guztia- ren partez.



Zorionak, **Maddi** eta **Ane**, 8 eta 5 urte beteko dituzuelako. Etxeko guztien partez.



Azkenean zuei ere iritsi zaizue eguna! Disfrutatu eta zoriontsuak izan etapa berri honetan. Zuen familia eta kuadrilla.



Zorionak, **Malen** eta **Aimar**. Oso ondo pasa gaur zuen zortzigarren urte- betetzean. Segi orain arte bezain jator.



Zorionak, **gure maitiak**. 7 eta 4 ho- nezkerok. Danon partez mila patxito. Muuuu!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO
IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO
PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Uzuri ELGOIBAR - DEBA optika audio

www.uzurioptika.com

ZURE LENTILLA PAKAREKIN Nezeserra + Malko artifiziala opari

Kontsultatu baldintzak dendan/ Balioagarria stocka agortu arte.

24 BARIXAKUA

18:00-20:30 Odol-ematea. Osasun Zentroan.

19:00 Nahaste Borraste. Antolatzailea: Kimetz Elkarte. Kalegoen plazan.

25 ZAPATUA

9:00-14:00 Baserriko produktuen salmenta Kalebarren plazan.

10:00-14:00 Barkamenari buruzko mintegia (euskaraz). Gidaria: Izan Arregi. Upai Goiti baserrian.

11:00 Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin prestatutako pintxoak. Sanlo Eskubaloi taldearen eskutik. Kalebarren plazan.

11:00-13:00 Eskola Arrakasta proiektua aurkezteko informazio mahaia. Kalebarren plazan.

12:00 Kale kantariak. Kalebarrenen.
12:30-14:30 Argizariz egindako kandelaren tailerra umeentzako.

Eguerditik arratsaldera, Ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

26 DOMEKA

10:00-14:00 Barkamenari buruzko mintegia (gaztelaniaz). Gidaria: Izan Arregi. Upai Goiti baserrian..

27 ASTELEHENA

9:00 Udako txokoen hasiera. Antolatzaileak: Atxutxiamaiika eta Elgoibarko Udal Ludoteka. Kalegoen plazan eta Maalako parkean.

9:30 Udako kirol kanpusaren hasieran. Antolatzailea: Udal Kirol Patronatua. Olaizaga kiroldegian.

19:00 Elgoibar BHI institutuko batxilereko diploma banaketa. Herriko Antzokian.

1 BARIXAKUA

19:30 Sanlo eskubaloi taldeko bazkideen urteko batzarra. Kultur etxeko hitzaldi gelan.

22:30 Aire libreko zinea. *Ocho apellidos Catalanes*. Kalegoen plazan.

IDOTORBE-SAN PEDROKO JAIK

Ekainak 26, 28, 29 eta uztailak 1, 2, 3

26 DOMEKA

11:30 Euskadiko eta Nafarroako Cross Country Motor Txapelketako lasterketa.

28 MARTITZENA

19:00 Jai hasiera. Txapliguak eta kanpaiak.

29 EGUAZTENA

San Pedro Eguna

11:00 Prozesioa eta meza nagusia.

Ondoren, Salda eta txorizoa Armuetak, Goikoetxek eta Zahatzuegik eskainita.

12:30 Pilota partida, lagunak elkarteak.

14:00 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria.
Egun guztian, Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariak.

1 BARIXAKUA

21:00 Lagun arteko afaria San Pedro elkarrean. Izen-ematea: 600 789 790.

23:00 VII. Mus txapelketa.

2 ZAPATUA

16:30 Ume-jolasak eta Niala magoa.

18:30 Giza proba. Tope naxiok taldea.

21:00 Lagun arteko afaria jatexean.

23:30 Gaupasa, Iñaki Laja eta Andoni Larrañaga trikitilariak.

3 DOMEKA

10:30 Meza.

Ondoren, Salda eta txorizoa, San Pedro elkarteak eskainita.

12:00 Dantza, Euskal Dantzari Taldekoekin (auzoko umeak protagonista).

13:00 Bolo txapelketa.

17:30 Idi demak. Parte hartzaileak: Artaso, Soarte eta Kamiñoko.

Egun guztian, Baltzola anaia trikitilariak.

ALTZOLAKO SAN JUAN JAIK

Ekainak 24, 25 eta 26

24 BARIXAKUA

San Juan Eguna

11:00 Prozesioa santuaren irudiarekin. Meza, abesbatzaren laguntzarekin eta San Juan lore-sorten bedeinkatzea. Pilotalekuan.

12:00 Dardo txapelketarako izen-ematea.

17:00 Umeentzako jolasak.

19:00 Niala magoaren ikuskizuna.

20:30 Txokolatada.

22:00 DJ saioa.

25 ZAPATUA

San Juan Txiki

12:00-14:00 eta **17:00-20:00** *Wipe-out* (Egon adi eta egin salt!) eta adin guztientzako puzgarriak, pilotalekuan.

15:00 Herri-bazkaria, pilotalekuan.

17:00 Karaokea.

22:00 DJ saioa.

00:00 Suak.

26 DOMEKA

14:00 Sardina-jana.

16:00 Dardo, mus eta tute txapelketa.

20:00 Sari-banaketa.

21:00 Jai bukaerako txapliguak.

Nabarmenduak Eibarko txosnak San Juanetan

San Juan jaiak ospatuko dira Eibarren asteburuan eta egitarau zabala Sizango da herriko hainbat txokotan. Txaltxa Zelaiko txosnetan, esaterako, gauero egongo dira kontzertuak. 24an The Guilty Brigade, Sinnerdolls, Hexen eta Etoa Naizen taldeak arituko dira; 25ean Rude Pride, Nekez, DJ Mapatxe eta Left Hook, 22:30ean hasita. Mozorro egunean, 26an, berriz, erromeria egongo da Erokomeri taldearekin 21:30ean eta Karaokea 23:30ean.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G 09:00 - 22:00
U 24 Barixakua GARITAONANDIA
A 25 Zapatua YUDEGO
R 26 Domeka YUDEGO
D 27 Astelehena ORUESAGASTI
I 28 Martitzena BARRENETXEA
A 29 Eguaztena IBAÑEZ
K 30 Eguena GARITAONANDIA
 1 Barixakua ETXEBERRIA

22:00 - 00:00
 Astelehenetik domekara
 ETXEBERRIA (Elgoibar)
 Santa Ana, 1
 Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00
 IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19
 Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro)
 Tel.: 943 756 142
 * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 638
 * Oruesagasti: Kalebarren, 9
 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 384

A. Garate
 Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
 angelmgarate@gmail.com
 Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar
610 226 651

atzak
 taberna
 San Roke 28, behea
 943 531 301 / 646 443 183
 Bazkari eta aitari bereziak ematen ditugu

ORBE
 PERTSIANAK EGITEN DITUGU
 TOLDO MOTA GUZTIETAN ADITUAK
 Karabixa, 1 - Ermua
 Tel.: 943 179 860
 www.toldosypersianasorbe.com
 persianasorbe@gmail.com
TOLDOAK ETA PERTSIANAK

IRAZABAL
 clínica dental
Familiaren Osasuna
 Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako
 Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu
 Facebooken: Clínica Dental Irazabal | Eta twitterren: @Clinicairazabal
 Ainhoa Zulueta
 DENTISTA
 Azulek emari kontzertuak
 8:00etik 22:00etara
 Zabalduak
 10:00etik 14:00etara
 FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantza ekonomiko handiak eta finantziario ezin hobak. GALDETU
IRAZABAL
 clínica dental
 Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
 Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Manu Sanchez



Unai Villena



Txiki-txikitatik ginen lagunak, baina halako batean, institutuan hasi eta gutxira, zure ondoan esertzea higuigarria bihurtzen hasi zitzaidan. Usain txarra zenuela esaten zuten denek eta, niri ere, aurretik garrantzirik eman ez nion txikieria hura enbarazu egiten hasi zitzaidan, modurik bortitzenean. Konturatzerako, zure ahoko hatsak animalia hilak zekarzkidan gogora: zizare zuriek jandako usteldutako arratoien haragia; eta zure gorputzaren izerdi-sundak okaztagarri bihurtzen zuen inguruko airea, ezin arnastuzko egu-

rats astuna bihurtzeraino. Kirats garratz hura sudur-zuloetara itsasten zitzaidan eta zure besape, ipurdi eta hankarte iletsuak imajinatzen nituen lurrin trinkoa igortzen, zure baserriko simaurmetek igortzen zutena bezalakoa. Begiratzen zintudanean, betiko lagunaren ordeztu, simaur-meta bat ikusten hasi nintzen zugan. Baina ez nizun esan, ez nuen ezer esateko adorerik izan, eta haserre hura asmatu behar izan nuen zugandik aldentzeko, zure laguna izanda, institutuko gainontzeko eskola-kideek ni neu ere baztertuko nindutela beldur bainintzen. Onarpenaren usainera jo nuen, eroso, koldar- eta traidore-kiratsa neurekin eramanda. Ni bai simaur-meta!

*“Institutuan hasi eta gutxira,
zure ondoan esertzea higuigarria bihurtzen hasi zitzaidan”*



JATETXEA

Santa Ana Kalea, 10 behea

943 254 232

- ✦ Eguneko Menua
- ✦ Karta
- ✦ Plater Konbinatuak
- ✦ Gosariak
- ✦ Konbinatuak

“Gure imajinarioa kantagintzaren bitartez”

Zelan kantatu dute gure idazle eta musikariek Euskal Herria?

ikastaroa (10 ordu)

Urriak 5-13-19-26 eta azaroak 2
Kultur Etxeko hitzaldi-gelan
Ordutegia: 18:30 - 20:30

Plaza mugatuak (30 lagunentzako)
Prezioa: 30€ (27€ bazkideek)
Izena emateko: Elgoibarko Izarra 943 741 626
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Irakasleak:

Gotzon Barandiaran eta Rafa Rueda



Ondo pasau jaixetan!

Aurrez enkargatuz gero, hobe!

SAN PEDRO

J A T E T X E A
SAN PEDRO AUZOA
Tel. 943 740 010
ELGOIBAR





Aukerak zabaltzera goaz

elgoibar

ehbildu